

## **TABAKALERA KO UBIK liburutegiko lan gatazkan inplikatzeari dagokion**

### **KONTROL MOZIOA**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11ko Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Iazko abenduaren 22tik greba mugagabea daude TABAKALERA zentroko Ubik mediatekako bitartekariak beren baldintzak direla-eta. Gatazka luzea da, Udalean ere hizpide izan dena, Udaleko inplikazioa beharrezkoa zelakoan, batetik, eta bitartekariak beraiek Udalbatzako kideok interpelatu dituztelako, bestetik. Berriz ere joan den urtarrilaren 23an zuzendu ziren Udalbatza osatzen dugun kideongana hilabete bat greban eginda inongo berririk ez zutelako. Horren ostean jakin dugu hurrengo egunetan hainbat bilera izan zirela eta berriz hurrengo asterako geratzeko asmoa omen zagoela.

Greba mugagabea dela kontuan hartuta, eta, ondorioz, zerbitzua publikoari itxita geratu dela jakitun bilerak astez aste egiten ari zirela jakitea gatazkari irtenbide emateko erritmo moteltzat jo genuen. Halaber CICC SA / TABAKALERA zentroko presidentea Goia alkatea den neurrian Udalaren inplikazio handiagoa izatea beharrezkoa delakoan irizita gaude, irtenbide negoziatu eta egokia aurkitzekotan. Horregatik interpelazioa aurkeztu genion alkateari, Kulturako zinegotziak erantzun ziguna pasa den hilaren 11n. Bere erantzunen bidez jakin dugu, alkateak bilera bakarra egin duela urtarrilaren 14an eta ez dagoela inongo asmorik besterik egiteko, gatazkaren ardura osoa enpresa eta langileen artean kokatuz, "hirugarrenen parte hartzeak onak ez direlakoan".

Mozio hau eztabaidatzen den egunean bi hilabete izango dira langileak greban daudenetik. Tarte horretan bilera bakarra alkatearen partetik, alegia, erakundearen presidentearen partetik, zentroko zerbitzu inportanteenetako bat guztiz itxita dagoen bitartean ez dirudi oso jarrera proaktiboa, gatazkari irtenbide bat laguntzeko, ezta horrela betetzen denik 2018ko azaroan Udalbatzak hartu zuen erabakia hitzez hitz zioena *"Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eta alkateari hertsiki eskatzen die Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa S.A. (Tabakalera) delakoaren UBIK liburutegiko bitartekarien kolektiboarekin elkartzeko ... bertan duten gatazkan bitartekaritza lana bideratzeko."*

Bi hilabetetan bilera gutxi eta bitartekaritza are eta gutxiago.

Aurreko helburuak eta aginduak presente, gatazkari irtenbidea emateko dagoen moteltasunaren aurrean, ezin da ulertu Udalaren inplikazio zuzenaren falta, alkatea dena buru izan beharko litzatekeena.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Azaroan aurreratu genuen gaia UBIK liburutegia kudeatzen duen enpresaren eta bertako langileen artean konpondu beharrekoa dela entzuteko arriskua zegoela eta hala bete da; edo entzuteko Tabakalerako zuzendaritzari dagokion gaia dela zuzendaritzarengan konfiantza izateko beharra azpimarratu baitzaigu behin eta berriro. Berriro aurreratuko dugu konfiantza osoa edukita ere ez duela kentzen Udal Gobernuak, bereziki alkateak, egin dezakeen bitartekaritza lana gatazka honetan beste hainbatetan egin den bezala. Eta, noski, gatazka enpresa eta langileen arteko dela baina horrek ere ez du kentzen, zerbitzua itxita egoteari dagokionez Udalak duen ardura erakundearen parte inplikatu den neurrian.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

Donostiako Udaltzarak Udal Gobernuari eta alkateari hertsiki eskatzen die Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa S.A. (Tabakalera) delakoaren UBIK liburutegiko bitartekarien lan gatazkan inplikatzeko aktiboki, irtenbide egokia aurkitu eta azkartze aldera.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia